

Blokeak

eta

Ardatzak

[euskaraz](#) 1

[gaztelaniaz](#) 4

TRANTSIZIO EKOSOZIAL JUSTURANTZ

BLOKEAK ETA HORIEN ARDATZ NAGUSI BATZUK

"BIZITZA DUINAK GUZTIONTZAT, NATURA BIZIGARRI BATEAN"

KONTUAN HARTZEKO

Su txikien itsasoa ekimenaren helburua trantsizio ekosozial justurako ardatz nagusiak eta oinarrizko aldarrikapenak jorratzea da, denon artean zoru komuna eta oinarrizko adostasunak non dauden identifikatzeko. Ez da ariketa erraza, eta horregatik dokumentu honetan oinarrizko bloke eta ardatz batzuk proposatzen ditugu abiapuntu gisa. Helburua bloke eta ardatz horiek eztabaidatu eta osatzea, baita horien baitako aldarrikapen zehatzak identifikatzea, ondoren, horien artean aldarrikapen komunak zeintzuk diren landu ahal izateko.

Beraz:

- Nola ikusten dituzu blokeak eta ardatzak?
- Zein aldarrikapen edo lan lerro jorratzen ari zarete orain? Non kokatuko zenukete?

BLOKEAK ETA ARDATZAK

1- PLANETA BIZIGARRIA GUZTIONTZAT. Planetaren muga biofisikoekin egin dugu topo: erregai fosilen aroaren hondarretan aurkitzen gara, eta ezin dugu atmosferara negutegi efektuko gasak isurtzen segi. Denok dugu ardura material eta energia kontsumoa murrizteari dagokionez, baina erantzukizun maila ez da bera.

- **MATERIAL ETA ENERGIA KONTSUMOA MURRIZTU.** Planeta finitu batean, baliabideak ere mugatuak dira. Egun, gure jendarteetan muga horietatik gora kontsumitzen ari gara, bereziki Ipar Globalean; hazkunde ekonomikoa gero eta gehiago kontsumitzearekin lotzen da. Horren aurrean, material eta energia kontsumo globala murriztu behar dugu: oinarrizko beharrezkoak bermatuz, eta gehiegizko kontsumoari mugak jarritz.
- **BIZIGARRIA GUZTIONTZAT. ZOR EKOLOGIKOA, PATRIARKALA ETA KOLONIALA AITORTU, ERREPARATU ETA KITATU.** Baliabideak mugatuak badira, gure jendarteak ezin daitezke oinarritu beste gorputz eta lurraldeak arpilatu eta esplotatzean: Hegoalde Globaleko gorputz eta lurraldeena, emakumeena, pertsona migratuena, landa eremuarena...

2- BIZITZAK ERDIGUNERA. DESMEREKANTILIZATU, DESPATRIARKALIZATU, DESKOLONIZATU. Bizitza bizigarriak ditugu helburu, eta horretarako antolatu nahi dugu gizartea- Pribatizazioaren aurrean, ekodependienteak eta interdependienteak garela kontziente izanik, bizitzeko funtsezkoa dena herritar guztiontzako nahi dugu.

- **BIZITZAK ERDIGUNERA.** Egungo sistema gutxi batzuen negozioak eta etekinak bermatzeko dago antolatuta. Guk, bizitza bizigarriak bermatzea helburu duen sistema eraiki nahi dugu, eta horren arabera irauli ekonomia, lanaren antolaketa zein gizartearena.
 - Ekonomia ekologikoa eta ekonomia feminista aintzat hartuz, ongizatea neurtzeko adierazle berriak sortu. BPGa bezalako adierazleak baztertu.
- **OINARRIZKO BEHARRIZANAK ETA ESKUBIDE SOZIALAK BERMATU GUZTIONTZAT.** Herritar guztiok funtsezko bizi-premiak bermatuta izan behar ditugu, eta beraz ezin dira espekulaziorako eremu izan eta merkatu kapitalistalisten esku egon.
 - Zerbitzu publikoak defendatu, indartu eta garatu.
 - Oinarrizko beharizanen pribatizazioa eten.

3- LANAK DUINDU ETA BIRBANATU, ONDASUNAK BIRBANATU Lanak, bereziki funtsezko lanak eta enpleguak, duindu eta birbanatu behar ditugu. Lan guztiak, ongizatea sortzen duten heinean, eskubideen sortzaile izan behar dira ondasunaren banaketari begira.

- **LANAK DUINDU ETA BIRBANATU.** Lanak, enplegu forma dutenak zein zaintza lanak duindu eta birbanatu behar ditugu. Lan baldintza duinak enpleguetan – bereziki funtsezko eremuetan (osasungintza, hezkuntza, zaintzak...) –, lanaldia murriztu enpleguak birbanatzeko, zaintza lanak birbanatu emakume, gizon eta instituzioen artean, ondasunak birbanatu.
- **ONDASUNAK BIRBANATU.** Egungo ondasunaren banaketa erabat injustuaren aurrean aberastasuna birbanatzearen alde egin behar dugu. Gehien duenak zerga handiagoak ordain ditzala denok bizitzeko nahikoa izan dezagun.

4- BURUJABETZA Eremuz eremu erabakiak hartu eta gauzatzeko gaitasuna eraiki behar dugu: iraunkortasunagatik, kontrol demokratiko handiagoagatik, erantzukizun kolektiboaren ikuspegitik...

- **BURUJABETZAK ERAIKI.** Energia, elikadura, telekomunikazioak... eremuz eremu eraiki nahi ditugu. Abiapuntu, baliabide, bide... ezberdinak jorratu beharko baditugu ere, norabidea eremuz eremu erabakiak hartzeko eta gauzatzeko gaitasuna handitzea da.
- **TOKIKO EKOIZPENA ETA KONTSUMOA LEHENETSI.**

5- ESKUBIDE GUZTIAK PERTSONA GUZTIENTZAT. Pertsona guztiok dugu bizitza duina izateko eskubidea, sexua, generoa, baliabide ekonomikoak, etnia, jatorria, hizkuntza, kultura... ezin daitezke izan diskriminaziorako arrazoi.

6- TRANTSIZIOAN EUSKAL HERRITARROK PROTAGONISTA. PLANGINTZA DEMOKRATIKOA ETA SOZIALKI JUSTUA.

Egungo sistema kapitalista ez da gai beharrezko dugun aldakera ekosozialari erantzuteko, bere oinarrien kontra joango litzatekeelako. Epe laburreko erantzun eta etekinen aurrean, sakoneko eraldaketak eta planifikazioa behar ditugu. Horretan, herritarrok izan behar dugu eraldaketa horren protagonista, eta sektore publikoa eta egitura instituzionalak trantsizio horren mesedetara dauden tresnak izan behar dira.

- **PLANIFIKAZIO PUBLIKOA HERRITARRON ZERBITZURA.** Neurri kosmetikoak, inprobisazioak, konponbide magikoak, etekinen bila harturiko neurriak... ez dira erantzuna. Trantsizio ekosozialak aldaketa handiak eskatzen ditu, egiturazkoak. Botere publikoetatik aldaketa horien norabidean planifikazio estrategikoa egitea beharrezkoa da, eta eskura dituzten tresna ekonomiko, politiko, sozial eta kultural guztiak honen mesedetara jartzea.
- **HERRITARROK TRANTSIZIOAREN PROTAGONISTA.** Horretarako beharrezko mekanismo eta egiturak sortu behar ditugu. Izan instituzioetatik gobernantza eredu errealki parte-hartzaileak sustatuz, izan herritarrok antolatuz trantsizio horretan eragiteko egitura propioak sortuz herrigintza eta autogestiotik.
- **AHALDUNDU ETA ERALDATU. NORBANAKOTIK KOLEKTIBORA.** Nahiz eta jakin banakoen ohituretan ematen diren aldaketek ezin dituztela beharrezkoak diren egiturazko aldaketak ordezkatu, badakigu, era berean, aldaketa horiek ezinbestekoak direla. Horregatik, norbanakook kontsumismotik, xahutzetik eta egungo gehiegikeriaren logikatik balore berrietan oinarrituko diren bizi eredu berrietara egin behar dugu jauzi. Hau, kolektiboki eta komunitatean eginez, eraldaketan urratsak eman ditzakegu.

Euskal Herriko eskubide sozialen karta

HACIA UNA TRANSICIÓN ECOSOCIAL JUSTA

BLOQUES BÁSICOS Y ALGUNOS EJES PRINCIPALES

"VIDAS DIGNAS PARA TODAS, EN UN ENTORNO HABITABLE"

A TENER EN CUENTA

La iniciativa "Mar de Fuegitos" tiene como objetivo diseñar los principales ejes y reivindicaciones básicas para una transición ecosocial justa que delimite un suelo común y unos consensos básicos. No es un ejercicio sencillo y por eso en este documento proponemos como punto de partida una serie de bloques y ejes básicos. El objetivo es debatir y completar estos bloques y ejes, así como formular algunas reivindicaciones concretas, y así poder determinar, posteriormente, una serie de acciones a realizar derivadas de los mismos.

Por tanto:

- ¿Cómo veis dichos bloques y ejes?
- ¿Qué reivindicaciones o líneas de trabajo estáis trabajando ahora? ¿Dónde lo situarías en un esquema similar?

BLOQUES Y EJES

1- PLANETA HABITABLE PARA TODAS Y TODOS. Hemos alcanzado ya los límites biofísicos del planeta: nos encontramos al final de la era de los combustibles fósiles y no deberíamos seguir emitiendo más gases de efecto invernadero a la atmósfera. Todas y todos tenemos responsabilidad en la reducción de nuestro consumo material y energético, pero el nivel de responsabilidad nunca es el mismo.

- **REDUCIR EL CONSUMO DE MATERIALES Y ENERGÍA.** En un planeta finito, los recursos también son limitados. Actualmente, en nuestras sociedades estamos consumiendo por encima de estas limitaciones, especialmente en el Norte Global; el crecimiento económico conlleva un consumo creciente. Ante esto, debemos reducir el consumo global de materiales y energía, garantizando las necesidades básicas pero poniendo límites al consumo excesivo y superfluo.
- **HABITABLE PARA TODAS Y TODOS. RECONOCIMIENTO, REPARACIÓN Y CANCELACIÓN DE LA DEUDA ECOLÓGICA, PATRIARCAL Y COLONIAL.** Si los recursos son limitados, nuestras sociedades del norte global no pueden seguir basándose en el saqueo y explotación de otros cuerpos y territorios: de los cuerpos y territorios del Sur Global, de las mujeres, de las personas migradas, del medio rural...

2- VIDAS EN EL CENTRO. DESMERCANTILIZAR, DESPATRIARCALIZAR, DESCOLONIZAR. Nuestro objetivo es asegurar vidas dignas y para ello debemos reorganizar la sociedad. Frente a la creciente privatización, y conscientes de que somos seres ecodependientes e interdependientes,

consideramos esencial para garantizar vidas dignas para toda la ciudadanía:

- **COLOCAR LAS VIDAS EN EL CENTRO.** El sistema actual está organizado exclusivamente para garantizar los negocios y los beneficios de una élite. Frente a esto, necesitamos construir un sistema que tenga como objetivo garantizar vidas dignas y, en consecuencia, revolucionar la economía, la organización del trabajo y la propia sociedad.
 - Se deben crear nuevos indicadores para medir el bienestar teniendo en cuenta una nueva economía ecológica y feminista. Debemos abandonar los actuales indicadores, tan sesgados como el PIB.
- **GARANTIZAR LAS NECESIDADES BÁSICAS Y LOS DERECHOS SOCIALES PARA TODAS Y TODOS.** Toda la ciudadanía debe tener garantizadas las necesidades vitales fundamentales, por lo que estas no pueden ser un espacio de especulación y estar en manos en criterios de los mercados capitalistas.
 - Defensa, fortalecimiento y desarrollo de los servicios públicos.
 - Revertir la privatización de todos los servicios públicos básicos.

3- DIGNIFICAR Y REDISTRIBUIR LOS TRABAJOS, REDISTRIBUIR LA RIQUEZA. Debemos dignificar y redistribuir todos los trabajos, tanto los trabajos reproductivos como los empleos. Todas las actividades, en la medida en que generen bienestar común, deben también generar derechos de cara a la distribución de la riqueza.

- **DIGNIFICAR Y REDISTRIBUIR LOS TRABAJOS.** Debemos dignificar y redistribuir los trabajos, tanto los que tienen forma de empleo como los de mantenimiento de la vida. Condiciones de trabajo dignas en los empleos, especialmente en los ámbitos básicos (sanidad, educación, cuidados), reducción de jornada para redistribuir empleos, redistribución de tareas de cuidado entre mujeres, hombres e instituciones públicas.
- **REDISTRIBUCIÓN DE LA RIQUEZA.** Debemos postular una redistribución plural y multifactorial de la riqueza frente a la injusta y desigual distribución actual. Empezando por que las personas que más tienen aporten más fiscalmente, para contribuir a que todas posean lo suficiente para vivir.

4- SOBERANÍA. Tenemos que instaurar la capacidad de tomar decisiones y llevarlas a cabo sector por sector: para garantizar la sostenibilidad, por conseguir un mayor control democrático, para desarrollar una mayor responsabilidad colectiva...

- **CONSTRUIR SOBERANÍAS.** En energía, alimentación, telecomunicaciones... Debemos construirlas una a una. Aunque utilizando diferentes puntos de partida, recursos, procesos... el camino persigue aumentar la capacidad de decisión individual y comunal en todos los sectores.
- **PRIORIZAR LA PRODUCCIÓN Y EL CONSUMO LOCAL.**

5- TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS. Todas las personas, sin exclusión, tenemos derecho a una vida digna. Ni el sexo, ni el género, ni los recursos económicos, ni la etnia, ni el origen, ni las creencias, ni la lengua, ni la cultura... pueden ser motivo de discriminación.

6- PROTAGONISMO DE LA CIUDADANÍA VASCA EN LA TRANSICIÓN. PLANIFICACIÓN DEMOCRÁTICA Y SOCIALMENTE JUSTA. El sistema capitalista actual es incapaz de responder al cambio ecosocial que necesitamos porque iría en contra de sus bases. Frente a sus respuestas a corto plazo y beneficios para una minoría necesitamos transformaciones de fondo y planificación del bien común. Para ello, la ciudadanía debemos ser los protagonistas de esta transformación y el sector público y las instituciones deben ser los instrumentos básicos que favorezcan dicha transición.

- **PLANIFICACIÓN PÚBLICA AL SERVICIO DE LA CIUDADANÍA.** Ni las medidas cosméticas, ni las improvisaciones o soluciones mágicas, pueden ser una respuesta válida. Una transición ecosocial justa exige grandes cambios estructurales. Será necesaria una planificación estratégica desde los poderes públicos y con participación popular, para garantizar la equidad de estos cambios y poner a disposición de dicha transición todos los instrumentos económicos, políticos, sociales y culturales existentes ya en la sociedad.
- **CIUDADANÍA PROTAGONISTA DE LA TRANSICIÓN.** Para ello se deben crear los organismos y estructuras necesarias que posibiliten esa transición. Tanto desde las propias instituciones, promoviendo modelos de gobernanza realmente participativos, como desde la ciudadanía, creando estructuras propias para incidir en esta transición desde fórmulas de autogestión.
- **EMPODERAR Y TRANSFORMAR, DE LA PERSONA AL COLECTIVO.** Aunque somos conscientes de que los cambios en los hábitos individuales no pueden sustituir a los cambios estructurales necesarios, también sabemos que estos cambios individuales son imprescindibles. Por eso, las personas también deberemos transicionar desde el consumismo, el despilfarro y la actual lógica del exceso, hacia nuevos modelos de vida que se basen en nuevos valores, como la contención y la autosuficiencia.. Solo el realizarlo en la alegría y la seguridad de una comunidad compartida, nos permitirá llevar a buen puerto esa ansiada transformación.

Carta de los derechos sociales de Euskal Herria